

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Funtsezko jarduerak, enpresa baten negozio-ereduak funtziona ditzan egin behar dira. Jarduera hauek ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak dira.

Gure enpresak ez da “ekoizpena” atalaz gauzatuko, guk ez dugulako produkturik ekoiztuko.

Gure enpresaren balio-proposamena sortzeko funtsezko jarduerak edo prozesuak hauek izango dira, garrantzitsuenetik hasita:

- Gure enpresaren muina eta mamia (gure bezeroentzako informazioa) lortzeko, Euskal Herriko unibertsitate guztiekin (bai pribatuak bai publikoak) kontaktuan jarriko gara gradu bakoitzeko jakin behar den guztia azal diezaguten.
- Enpresaren webgunea eta *Play-Store*n eta *App Store*n aplikazioa sortzeko jarduera garrantzitsua da, gure enpresaren oinarria baita. Horretarako, aplikazioa plataforma hauetan nola sortu behar den informatu egin gara, eta dohainik dela konturatu gara. Beste aldetik, lehen aipatu dugun bezala, esparru hauetan profesionalak diren pertsonak kontratatuko ditugu eta bere esperientzia kontatuko dituzten ikasleekin kontaktuan jarri behar gara.
- Ondoren, gure enpresarentzako garrantzitsua den beste jarduera bat, gure bezeroek dituzten galderak, kexak, etab erantzuteko, e-mail eta telefono zenbaki bat edukitzea da. Hau gauzatu ahal izateko, gure bulegoan telefonoa eta ordenagailuak edukiko ditugu.
- Gure plataforman publizitatean jarri nahi duten enpresekin kolaboratzea.
- Beste jarduera garrantzitsu bat, gure enpresaren publizitatea egitea da; **banaketa eta komunikazio-atalean** nola gauzatuko dugun aurretik komentatu egin dugu.
- Gure enpresa sortzeko jarduera guztiak aipatu eta gero, arazoak sortzen badira, hauen konponketa kontuan hartu behar dugu. Horretarako, edozein arazo badago, (webgunearekin arazoak etab.)



bezeroak edo gure hornitzaileak (unibertsitateak, kontratatutako profesionalak...) gurekin kontaktuan jarri behar izango dira, e-mail edota telefonoz bitartez, eta arazoa konpontzeko behar den guztia komentatuko dugu eta konpontzeko behar den guztia egingo dugu, gure bezeroak pozik egon daitezzen.

